


Urrietako Udala*Tipuzkoa**Ayuntamiento de Urrieta*

**2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006**

Akta zenbakia: 10/2006**Bilera data:** 2006-09-15**Bilera mota:** Ezohiko osoko bilkura**Deialdia:** Lehenengoa**Ordua:** 09:00-9:30**Tokia:** Udaletxeko areto nagusia**Acta nº:** 10/2006**Fecha:** 15-09-2006**Tipo de reunión:** Pleno extraordinario**Convocatoria:** Primera**Hora:** 9:00 – 9:30**Lugar:** Salón de plenos del Ayuntamiento**Bertaratutakoak:****Alkatea:** Florentino Ugalde Atxaga**Zinegotziak:**

Maria Isabel Vaquero Montero
 Jose Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Angeles Iriondo Mugica
 Gaspar Esnaola Agesta
 Hermenegildo Gonzalez Moran
 Consuelo Frutos Gonzalez
 Jose Guirado Novo
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M. Asuncion Guerra Alonso

Reunidos:**Alcalde:** Florentino Ugalde Atxaga**Concejales:**

Maria Isabel Vaquero Montero
 José Luis Aramendi Goikoetxea
 Jose Maria Aldanondo Ugalde
 Maria Ángeles Iriondo Múgica
 Gaspar Esnaola Agesta
 Hermenegildo González Morán
 Consuelo Frutos González
 José Guirado Novo
 Juan Maria Tomasena Alzuri
 M^a Asuncion Guerra Alonso

Euren ezin etorria adierazi ez dutenak:

M. Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 Jose Maria Mugica Heras

Ausentes, que no se han excusado:


M^a Teresa Pagazaurtundua Ruiz
 José María Múgica Heras

Bitarteko idazkaria:**Nagore Alkorta Elorza****Secretaria interina:****Nagore Alkorta Elorza****Aztergaiak:**

Lehenengoa eta bakarra.- Urrietako alderdi sozialistak aurkeztutako mozioak

Orden del día:

Primero y único.- Mociones presentadas por el Grupo Municipal Socialista



2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006

Alkateak hitza eman dio udal talde sozialistari, aurkeztu dituen mozioak azal ditzan. Mozio bakoitza aparte eztabaidatu eta bozkatzea erabaki dute.

El Alcalde ha cedido la palabra al grupo municipal socialista para que expliquen las mociones por ellos presentadas. Se ha decidido que se trate y vote individualmente cada moción.

2006ko ekainaren 8ko mozioa, Bigarren Hezkuntzako zentro berria eraikitzeko Arau Subsidiarioetako xedapen aldaketa bati buruzkoa

Moción de fecha 8 de junio de 2006 sobre la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias para la construcción de un nuevo Centro de Secundaria

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta adierazi du une garrantzitsu batean daudela; izan ere, talde parlamentario sozialistak legez besteko proposamen bat sartu du horren inguruan, eta beraiek ere Urnietako Udalak pentsatua zeukan kokaleku berbera proposatu dute Bigarren Hezkuntzako zentro berrirako.


Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán señalando que estamos en un momento importante ya que, a su vez, el grupo parlamentario socialista ha metido una proposición no de ley al respecto, contemplando las mismas posibilidades de ubicación del nuevo Centro de Secundaria que había contemplado el Ayuntamiento de Urnieta.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta adierazi du berak ere eskaera berbera aurkeztu zuela ekainaren 9an, eta ez dutela kontuan hartu. Bestalde, jakinarazi du tramiterako onartu dutela autobieren inguruan jarritako administrazioarekiko auzia. Adierazi du orain zalantzan jartzen duela kokaleku hori egokia ote den, hain zuzen uste duelako ez dela osasunerako oso ona ikastetxe batek autobia ondoan izatea.

Ha tomado la palabra el concejal de IU, Juan M^a Tomasena para señalar que él presentó también la misma solicitud a fecha 9 de junio y que la misma no se ha tenido en cuenta. A su vez, informa que ha sido admitido a trámite en relación a la autovía, el contencioso-administrativo planteado. Señala, por otro lado, que hoy en día cuestiona la idoneidad de la ubicación, y concretamente porque considera que el trazado de la autovía cerca de un centro educativo no ayuda a la salud.

PPko zinegotzi M. Asuncion Guerrak hartu du hitza, eta adierazi du atentzioa ematen diola talde sozialistak berriz ere horri buruz hitz egitea. Bertan daudenei gogorarazi die duela hilabete batzuk konpromisoa hartu zutela denek, Egape ikastolako ordezkariekin eta gurasoekin batera, Egape ikastolako Bigarren Hezkuntzako eraikin berria eraikitzeko sail bat gordetzeko. Adierazi du iradokizun edo "inposizio" hori adierazi zirela Arau Subsidiarioen erredaktore taldeari. EBko zinegotziak kokalekuari buruz adierazi duenari erantzunez, esan du kokaleku hori erabaki zutela ikastolako beste zatia hor

Ha tomado la palabra la concejal del PP, M^a Asunción Guerra para señalar que le llama la atención que de nuevo se traiga el tema por parte del grupo socialista. Señala que le gustaría recordar a los presentes que por unanimidad, hace unos cuantos meses, se comprometieron junto con los representantes de la Ikastola Egape y de los padres a reservar una parcela para construir un nuevo edificio de secundaria en la Ikastola Egape. Señala que cree que esa misma sugerencia o "imposición" fue transmitida al equipo redactor de las Normas Subsidiarias. Contestando a lo señalado por el concejal de IU sobre la ubicación responde que se decidió esa

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Sipuskoa*


2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006

dagoelako eta eraikin bateratu bat egitea delako kontua, neska-mutil guztiak zentro berean egon daitezten, futbol zelaia denek erabiltzeko modua izan dezaten... Adierazi du orain Arau Subsidiarioen hasierako dokumentua prestatzen ari direla eta hor gutxienez jasotzen dela mozioan oro har planteatzen dena. Orain Arau Subsidiarioetan xedapen bat aldatuko balitz zer gertatuko litzatekeen adierazi nahi duela esan du. Aldaketa hori Aldundiak onartu behar du, eta, haren iritziz, nahiko zaila da hori, eta are ezinezkoa ere, arauen berrikuspenean baitago. Nabarmendu du aldaketa egitea hutsetik hastea dela, xedapen hori aldatzeko aurrekontu sail bat beharko baitute, proiektua ordaintzeko, eta proiektua idazteko oinarriak landu eta onartu beharko dituzte, esleitu, jendaurrean jarri, alegazioak egin... hau da, hilabeteak eta hilabeteak beharko dituzte tramitazioa egiteko, eta pauso horiek guztiak emanda daude Arau Subsidiarioetan. Uste du hori guztia atzerapausoa litzatekeela jadanik jasota dagoen proiektu jakin horretarako. Adierazi du talde sozialistaren haur "kasketaldi" bat ematen duela horrek, ez baita protagonista kontu honetan. Talde sozialistari proposatu dio bat egin dezatela Arau Subsidiarioen berrikuspenarekin, eta, hala, aurrera egingo dutela.

ubicación porque la otra parte de la Ikastola estaba ahí y porque se trata de hacer un edificio unificado para que todos los chavales estén en el mismo centro, se puedan compartir los campos de fútbol... Señala que en estos momentos se está preparando el documento inicial de las Normas Subsidiarias y que el mismo ya recoge, por lo menos, lo que se plantea a nivel general en la moción. Señala que le gustaría señalar lo que pasaría en este momento si se hiciese una modificación puntual de las Normas Subsidiarias. Esa modificación ha de ser aprobada por la Diputación cosa que piensa que puede ser bastante difícil si no imposible al estar en la revisión de normas. Recalca que la modificación supone empezar de cero ya que para hacer una modificación puntual necesitarían una partida presupuestaria para pagar el proyecto, elaboración y aprobación de unas bases para la redacción del proyecto, su adjudicación, período de exposición pública, alegaciones o sea meses y meses de tramitación teniendo en cuenta que todos esos pasos ya están dados por las normas subsidiarias. Considera que todo ello supondría dar marcha atrás en un proyecto concreto que está ya recogido. Señala que todo esto le suena a "pataleta" de niño del partido socialista al no ser protagonista de este tema. Propone al partido socialista que se unan a la revisión de las normas subsidiarias y pueden así tirar para adelante.


EAJ-EAko bozeramaile M. Isabel Vaquerok hartu du hitza, eta EBko ordezkariari erantzun dio ikastetxetik hainbat metrotara egingo dela autobia, eta gainera ikastetxe parean ibilbide berbera dutela Aldundiak proposatzen duenak eta alternatiboak, zeina Udalak ez duen ezagutzen modu ofizialean. Beraz, Aldundiak proposatutako saihebidetako adina kalte egingo du autobia alternatiboak. Talde sozialistak aurkeztutako mozioari erantzunez, adierazi du udaletxe honetan lan egin beharrean Eusko

Toma la palabra la portavoz del PNV -EA, M^o Isabel Vaquero, contestándole al representante de IU que, aparte de que hay unos cuantos metros de la autovía que discurre a la par del colegio, el que propone la Diputación y el que propone la alternativa, que oficialmente no se conoce en el Ayuntamiento, es el mismo. Por lo tanto, tanto daño hace el trazado alternativo de autovía que plantean como el trazado de la variante propuesto por la Diputación. Respondiendo ya en concreto a la moción

**2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006**

Jaurlaritzan legez besteko proposamenak egiten ematen duela denbora, eta eskumena Eusko Jaurlaritzarena dela. Adierazi du udal honetako bi osoko bilkuratan aho batez onartu zutela Egape ikastolarako Bigarren Hezkuntzako zentro berria eraikitzeko lurra gorde eta kalifikatzea, ikastolak berak adierazitako ezaugarri eta beharren arabera. Horri buruzko lehenengo udalbatzarra agintaldiaren hasieran egin zuten, 2003ko azaroaren 26an. Konpromiso hori dela eta, erredaktoreak eskola komunitateko ordezkariekin bildu ziren Aurrerapena egiteko orduan, eta Arau Subsidiarioen Aurrerapenak jasotzen du eskaera hori. Hau da, udalbatzarrean hartutako erabaki baten ondorioz jaso zen eskaera hori Aurrerapenean. Bestalde, gogorarazi du eskola kontseiluak eta ikastetxeko guraso elkarteak Aurrerapenari egindako iradokizuna ere onartu zutela, aurtengo uztailaren 26an egindako udalbatzarrean, alderdi popularraren eta EAJ-EAren aldeko botoekin. Iradokizun horiekin eta urnietarrek egindako beste hainbat iradokizunekin, erredaktoreak dokumentu bat prestatzen ari dira, eta udalbatzarrera eramango dute, hasierako onespena emateko. Beraz, Udala beharrezko prozedura egiten ari da Bigarren Hezkuntzako ikastetxea egiteko. Uste dute talde sozialistaren planteamenduak jada ez duela zentzurik, orain arte emandako pausoetan atzera egitea litzatekeelako, eta Aldundiak ere ez lukeelako onartuko xedapen aldaketa bat, arauak berrikusteko prozesuan murgilduta egonda. Adierazi du orain dauden puntura ez liratekeela iritsiko agintaldi amaieran ere, baldin eta alderdi sozialistak proposatutako xedapen aldaketa hori egingo balute. Esan du ez duela zentzurik, eta orain arte egin ez duten lana zurrizko saio bat dela, eta hauteskunderi begira egindako mozio bat iruditzen zaiela.

planteada por el grupo socialista, señala que en vez de trabajar en este Ayuntamiento se dedica a hacer propuestas no de ley al Parlamento Vasco cuando la competencia es del Gobierno Vasco. Señala que en dos sesiones plenarias de este Ayuntamiento por unanimidad se acordó reservar y calificar suelo para la construcción de un centro de Educación Secundaria para la Ikastola Egape con las características y necesidades señaladas por la propia Ikastola. La primera sesión al respecto se celebró a inicios de legislatura, a fecha 26 de noviembre de 2003. Debido a ese compromiso los redactores se reunieron para la elaboración del Avance con los representantes de la comunidad escolar y el Avance de las normas subsidiarias de Urnieta recoge esa petición. Es decir, un acuerdo de Pleno motiva que el Avance recoja esa petición. Recuerda asimismo, que la sugerencia al Avance presentada por el Consejo escolar y por la propia Asociación de Padre y Madres del Centro ha sido aprobada por el Pleno celebrado el 26 de julio de este mismo año con los votos a favor del Partido Popular y del PNV-EA. Con estas y otras tantas sugerencias realizadas por los urnietarras, los redactores están preparando el documento que se someterá a la aprobación inicial del Pleno. Por lo tanto desde el Ayuntamiento se está siguiendo el procedimiento necesario para la consecución del centro de educación de secundaria. Consideran que el planteamiento del grupo socialista a estas alturas no tiene ningún sentido, porque supondría una marcha atrás en cuanto a los pasos seguidos hasta ahora y porque tampoco nos aprobaría la Diputación una modificación puntual cuando estamos inmersos en un proceso de revisión de normas. Señala que actualmente estamos en un punto al que tal vez no llegaríamos ni a finales de legislatura de seguir el trámite de modificación puntual planteado por el partido socialista. Señala que es un sin sentido y un intento de justificación del trabajo no realizado hasta el momento a la vez

Urnietako Udala*Syuzkoa**Ayuntamiento de Urnieta*

2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006

que les parece una moción muy electoralista.

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du bere ustez planteamendu hori ez dela atzerapauso bat. Esan du egia dela hori dena agintaldi hasieran hasi zela, eta hiru urte eta erdi egon direla, eta ikus dezatela non dauden; uste dute beren proposamena ona dela horri guztiari bultzada bat emateko. Xedapenak aldatzeko ezintasunari dagokionez, berak galdetu du gai horren inguruan, eta adierazi du Erreterian, arauak berrikusteko prozesuan, 32 xedapen aldatu zituztela. Hau da, nahi bada, egin daiteke. Adierazi du borondaterik izango balitz hori dena berrikuspena baino askoz ere azkarrago joango litzatekeela, eta adibiderik garbiena Lekun ingururako proposatu zuten xedapen aldaketan daukate. Nabarmendu du proposamen hori Eusko Jaurlaritzak onartzen badu eta beraiek aurrera egiten ez badute urrezko aukera bat galduko dutela.

Florentino Ugalde alkateak hartu du hitza, eta talde sozialistari erantzun dio industrialdeak ez duela industrialdea bera beste inplikaziorik. Baina ikastolaz hitz egitean, ez dira bakarrik 5.000 metroz ari, sarbideak, zerbitzua eta abar behar dira; beraz, ez dira gauza berari buruz hitz egiten ari.

EBko zinegotzi Juan M. Tomasena hartu du hitza, eta adierazi du berak uste zuela udaletxean aurkeztu zutela autobia alternatiboaren ibilbidea, ingeniari batek egindakoa. Talde sozialistako zinegotzi Hermenegildo Gonzalezek erantzun dio, Maribel Vaquerok lehen adierazi bezala, ikastola parean ibilbide berbera dutela biek.


Alderdi popularreko zinegotzi M. Asuncion Guerrak hartu du hitza, eta Hermenegildo Gonzalezek adierazi dio ez dela egia esaten ari.

Toma la palabra el concejal del PSE-EE Hermenegildo González señalando que él no está de acuerdo en que su planteamiento sea un paso atrás. Señala que es cierto que esto empezó a principios de legislatura, que han pasado tres años y medio y que se fijen dónde están y que consideran que con su propuesta es válida para darle un impulso a todo esto. En cuanto a la imposibilidad de no poder hacer modificaciones puntuales, él ha consultado el tema y señala que en Rentería en el proceso de revisión de normas llevaron a cabo 32 modificaciones puntuales. Es decir, si se quiere se puede. Señala que si hubiese voluntad esto podría ir muchísimo más rápido que puede ir la revisión y el ejemplo más claro lo tienen en la Modificación Puntual que se planteó en la zona de Lekun. Y recalca que si esa propuesta lo apruebe el Gobierno Vasco y ellos se quedan sin dar pasos perderán una oportunidad de oro.

Toma la palabra el Alcalde Florentino Ugalde contestándole al concejal del partido socialista que el polígono industrial no tiene más implicación que el propio polígono. En cambio cuando hablamos de la Ikastola no son sólo los 5.000 metros, implica accesos, servicios...por lo que no están hablando de lo mismo.

Toma la palabra el concejal de IU Juan M^a Tomasena señalando que a él le constaba que se había entregado en el Ayuntamiento el trazado alternativo de la autovía redactado por una ingeniería. Le contesta el concejal del partido socialista Hermenegildo González que, tal y como lo ha señalado antes Maribel Vaquero, a la altura de la Ikastola el trazado es el mismo.

Toma la palabra la concejal del Partido Popular M^a Asunción Guerra señalándole a Hermenegildo González que está faltando a la



2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006

Esan du xedapen aldaketaren bat tramitzeko epeak bete egin behar direla, eta badakitela eraikin berria egiteko gutxienez bi edo hiru urte beharko direla, eta Eusko Jaurlaritzak oraindik ez duela aurrekonturik egin horren inguruan. Adierazi du mozioa puntuz puntu bozkatu behar badute horrek tranpa handia duela. Esate baterako, mozioaren lehengo puntuak honela dio hitzez hitz: “*Urnieta Udaltzaren bere egin dezala gure herriak Bigarren Hezkuntzako ikastetxearen arazoak konpontzeko duen beharra*”. Eta hori beretu eta onartu dute, eta berak moziolari ezetz esaten badio, emango du horren guztiaren kontra egiten ari dela.

EAJ-EAko bozeramaile M. Isabel Vaquerok hartu du hitza, eta berak ere adierazi du mozioak lau puntu dituela, eta beraiek ados daudela mozioaren 1, 3 eta 4 puntuekin, baina ez dutela mozioaren alde bozkatuko, arauen xedapen bat aldatzea eskatzen duelako, eta beraien ustez 1, 3 eta 4 puntuak ari dira betetzen udaletxean ematen ari diren pausoekin.

Alkateak mozioa bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 4 (3 PSE-EE, 1 EB)
Kontra: 7 (6 EAJ-EA, 1 PP)
Abstentzioak: 0

Hala EAJ-EAko bozeramaileak nola PPko zinegotziak adierazi dute talde sozialistak aurkeztu duen mozioko 1, 3 eta 4 puntuen alde daudela, baina ezezko botoa eman dutela, ez baitaude ados 2. puntuan adierazten duten xedapen aldaketarekin.


verdad. Señala que los plazos para la tramitación de una modificación puntual hay que cumplirlos y que sabemos que hacer el edificio nuevo va a costar por lo menos dos o tres años, y que el Gobierno Vasco no tiene todavía nada presupuestado a este respecto. Señala que si se va a votar la moción punto por punto todo eso tiene mucha trampa. Por ejemplo, lo señalado en el primer punto de la moción que dice literalmente “*Que el Pleno del Ayuntamiento de Urnieta asume la necesidad que tiene nuestro municipio de solucionar los problemas del Centro Educativo de Secundaria*”, eso ya está asumido y aprobado y que si ella dice que no a la moción parece que está cargando contra todo.

Toma la palabra la portavoz del PNV –EA, M^a Isabel Vaquero, señalando, en la misma línea, que esta moción tiene cuatro puntos y que ellos sí están de acuerdo con los puntos 1, 3 y 4 de la moción pero que no van a votar a favor de la moción porque se exige una modificación puntual de normas cuando ellos entienden que los puntos 1, 3 y 4 ya se están haciendo con los pasos que se están llevando a cabo en el Ayuntamiento.

El Alcalde ha propuesto someter la moción a votación, siendo el resultado:

A favor: 4 (3 PSE-EE, 1 IU).
En contra: 7 (6 PNV-EA, 1 PP)
Abstenciones: 0

Tanto la portavoz del PNV-EA así como la concejal del PP señalan que quieren dejar constancia de que están a favor de los puntos 1,3 y 4 de la moción presentada por el partido socialista pero que votan en contra de la misma al no estar de acuerdo con la modificación puntual planteada en el punto 2 de la misma.

Urnietako Udala*Ayuntamiento de Urnieta**Sipuzkoa*

2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006

Botazioaren ondoren, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, la Corporación, por unanimidad, ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

Lehenengoa eta bakarra.- Ez onartzea talde sozialistak Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berria eraikitzeko Arau Subsidiarioen xedapen aldaketari buruz aurkeztutako mozioa (aktaren 1. eranskina).

2006ko abuztuaren 9ko mozioa, 50.000 euroko kontu-sail bat bideratzeko, Urnietan Bigarren Hezkuntzako zentro berria eraikitzeko egin beharreko tramiteak hasteko xedapen aldaketa egin ahal izateko.

Ikusirik lehenengo mozioaren inguruan hartutako akordioa, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez zinegotziak erretiratu egin du mozioa.

2006ko abuztuaren 9ko mozioa, Lekun Iturria izeneko ur-hargunea babesteko aukerari buruzkoa

PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta adierazi du esan ziotela ur biltegi eta hargune bat estaliko dela autobiarekin. Adierazi du antza denez Aldundiak ez duela hargune hori errespetatuko, eta hori dela eta, eskatzen du saia daitezela nolabait hargune hori babesten eta etorkizunean ur hori erabiltzeko modua egiten.

Alkateak erantzun dio horri buruzko txosten tekniko bat duela. Esan du hargune hori, beste batzuekin batera, Zubitxoko biltegian dagoela, inoiz behar izanez gero ere. Gaur egun ez dute erabiltzen biltegiaren eraikina, baina Zubitxora bideratua dago. Ura hartzen dute oraindik ere, eta hala jakinarazi zaie Aldundiko zerbitzu

ACUERDO

Primero y único.- No aprobar la moción presentada por el grupo municipal socialista sobre la Modificación Puntual de las Normas Subsidiarias para la construcción de un nuevo Centro de Educación de Secundaria.. (Anexo I del Acta).


Moción de fecha 9 de agosto de 2006 sobre la dotación de una partida de 50.000 € por medio de una modificación puntual para inicio de los trámites pertinentes con el fin de lograr el objetivo de poder construir un nuevo Centro Educativo de Secundaria en Urnieta

Visto el acuerdo adoptado en relación a la primera moción, el concejal del PSE-EE Hermenegildo González retira esta moción.

Moción de fecha 9 de agosto de 2006 sobre la posibilidad de salvaguardar la captación de agua, denominada Lekun Iturria

Ha tomado la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán señalando que le manifestaron que había un depósito y una captación de agua que va a ser tapada por la autovía. Señala que parece ser que no se contempla que esa captación sea respetada en un futuro desde Diputación y que a raíz de eso se solicita que se intente salvaguardar de alguna manera esa captación y en un futuro pueda utilizarse esa agua.

Le contesta el Alcalde señalando que tiene un informe técnico al respecto. Señala que esa captación junto a otras está recogida en el depósito de Zubitxo por si algún día fuesen necesarios. El edificio del depósito no se utiliza actualmente pero sí está canalizado a Zubitxo. La recogida de agua se mantiene y así se ha



**2006KO IRAILAREN 15EKO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 15 DE SEPTIEMBRE DE 2006**

teknikoei, Urnietako saihebiderearen proiektua idazteko orduan kontuan har dezaten. Adierazi du nahiz eta biltegiaren eraikina kendu egingo duten, kanalizazioari eutsiko diotela, Matxoko ponpa zaharren ingururaino.

Hermenegildo Gonzalezek erantzun du beraiek ur-hargune hori errespetatzea nahi dutela.

Alkateak mozioa bozkatzea proposatu du, eta emaitza hau izan du:

Alde: 11 (6 EAJ-EA, 3 PSE-EE, 1 EB, 1 PP)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

Botazioaren ondoren, Udalbatzak aho batez hartu du honako

AKORDIOA

Lehenengoa eta bakarra.- Onartzea udaleko talde sozialistak Lekun Iturriko ur-hargunea babesteko aurkeztu duten mozioa (aktako 2. eranskina).

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ezohiko udalbatzarra, goian adierazitako eguneko bederatzita eta erdietan, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala ziurtatu dut, alkatearen oniritziarekin.

Stua.: Nagore Alcorra Elorza
Bitarteko idazkaria,



trasmitido a los servicios técnicos de la Diputación a la hora de redactar el proyecto de la variante de Urnieta. Señala que aunque el depósito en sí como edificio desaparece se mantiene la canalización existente hasta la zona de las antiguas bombas de Matxo.

Contesta Hermenegildo González que lo que ellos quieren es que se respete la captación del agua.

El Alcalde ha propuesto someter la moción a votación, siendo el resultado:

A favor: 11(6 PNV-EA, 3 PSE-EE, 1 IU, 1 PP).

En contra: 0

Abstenciones: 0

Tras la votación, la Corporación, por unanimidad, ha adoptado el siguiente

ACUERDO

Primero y único.- Aprobar la moción presentada por el grupo municipal socialista sobre la posibilidad de salvaguardar la captación de agua, denominada Lekun Iturria(Anexo I del Acta).

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las nueve y media del día indicado en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,

